

Aberri eguna Gernikan

LA HAINE EUSKAL HERRIA :: 07/04/2023

JARDUN Koordinadorak Gernikan ospatuko du aurtengo Aberri Eguna, 12:30etan manifestazioa aterako da Merkurio plazatik.

Hirugarren urtez jarraian, JARDUN Koordinadorak Gernikan ospatuko du aurtengo Aberri Eguna. La Hainetik, jardunaldi honen esanahiaz eta Euskal Herriko nazio eta gizarte borrokaren gaurkotasunaz hitz egin dugu beraiekin.

1.Aberri Egunerako deia egiten duen komunikatuan estatuek Euskal Herriarekiko egiten duten ukazioaz eta Euskal Herriaren asimilazioaz hitz egiten duzue. Nola ikusten duzue Euskal Herriak gaur egun bizi duen une politikoa bi estatuekiko gatazka nazionalen?

Euskal Herria gaur egun frantziar eta espainiar estatu kapitalisten menpe aurkitzen da. Gauzak horrela, hauek aurrera daramaten nazio zapalkuntza euren interespeko merkatu bateratuaren eta lan indarraren mugikortasunaren asetzeari xede. Bide horretan, Euskal Herriak nazio gisa dituen baldintza objektiboak deuseztatzeko asimilazio-prozesuari eusten diote, hizkuntza eta identitate nazionalaren homogeneizazioa helburu izanik.

Bestalde, euskal burgesia bi estatu zapaltzaileek zapalkuntza nazionala bermatzeko baliatzen duten beste tresna bat da. Beraien klase interesei so eginda, Euskal Herria soilik etekin elektoraletarako edota ekonomikoetarako baliatzen dute horrela, zapalkuntza nazionala gauzatzeko beharrezkoak diren bitartekari juridiko, politiko eta instituzionalak bermatzen dituzten bitartean.

Horren guztiaren aurrean, zapalkuntza egoera gaindituko duen antolakuntza iraultzailearen tresnen faltan aurkitzen da Euskal Herri Langilea.

Hori da, hain zuzen ere, ziklo politiko berri honen lehenengo zeregina, Euskal Herri Langilea bere antolakuntza propioaren bitartez zapalkuntza egoera iraultzeko beharrezkoak diren tresnen eraikuntza, eta JARDUN Koordinadoratik bide horretan urratsak ematen hasiak gara.

2.Beraz, aurreko hamarkadetan baino asimilatuago ikusten duzue gaur egun Euskal Herria estatuen barruan?

Zalantzarik gabe, bi estatu zapaltzaileen asimilazio-prozesuak bere fruituak eman ditu, baina antolakunde iraultzaile erreferentzial baten gabeziak prozesu hori azkartu duela azpimarratu nahi dugu. Izan ere, aurreko ziklo politikoan aurrera eramandako borrokari esker, Euskal Herriko askatasunaren aldeko aldarriak eta beharrak gaur egun Euskal Herri Langilearen parte izaten jarraitzen dute. Aitzitik, borroka hori antolatuko eta gidatuko duen erreferente iraultzaile gabezia dela eta, Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borroka gainbeheran dago.

Horregatik beharrezkoa dugu nazio askapenaren aldeko borroka Euskal Herri Langilearen

aldeko borrokaren baitan txertatzea, prozesu honi integritasuna eman eta askapen nazionala herri langilearen askapen soziala suposatu behar duen proiektu politikoaren baitan kokatzeko.

3.Nazio gatazkaz gain, egun Euskal Herrian dagoen langile borrokaz eta klase borrokaz ere hitz egiten duzue. Zein gizarte egoeratan aurkitzen da gaur egun Euskal Herria?

Aipatu dugun moduan, Euskal Herriak pairatzen duen nazio zapalkuntza klase gatazkaren baitan ulertu behar dugu. Izan ere, estatu kapitalisten helburua da beraien merkatua ahalik eta lurralde zabalenera iristea, baita lan-indar gehiago eskuragarri izatea ere. Hortaz, Euskal Herrian ere pairatzen ditugu bi estatu kapitalisten dinamikak eta ondorioak, kapital metaketaren krisi kapitalistaren ondorioak gero eta nabarmenagoak baitira Euskal Herrian: soldata errealtaren jaitsiera, zerbitzu publikoen pribatizazioa, antolakuntza politikorako baldintzen urraketa eta egoera guzti hau mantentzeko beharrezkoa den errepresioaren indartzea zein gogortzea. Hori guztia gutxi balitz, Euskal Herri Langilea bere askapenaren aldeko borroka burutzeko beharrezkoak diren antolakuntzarako eta borrokarako tresnen gabeziaren aurrean aurkitzen da.

Horregatik, Euskal Herri Langileak bere askatasuna eskuratu eta sistema kapitalistak ezartzen duen miseria eta pobretze orokortua gainditzeko, bere klase interesen arabera eraikitako instituzio propioak eraiki behar ditu. Horretarako, beharrezkoa da Euskal Herri Langileak bere antolakuntzarako marko propioak sortzea eta pairatzen dituen zapalkuntza guztiak proiektu integral baten baitan borrokatzea.

4.Aipatzen duzuen beste gai bat estatuek euskal kulturarekiko eta, batez ere, euskararekiko egiten duten gutxiespena da. Nolako bilakaera izan dute hizkuntza-politikek herrialdeko lurralde guztietan eta zein egoeratan dago euskara gaur egun?

Ipar Euskal Herriari dagokionez, euskarak ez dauka inolako aitortza ofizialik, Frantziako konstituzioak argi eta garbi uzten baitu: “Frantsesa da Frantziar errepublikaren hizkuntz ofizial bakarra”.

Hala ere, urteetan zehar aurrera eramandako borrokaren ondorioz, BAXOA euskaraz egitea lortu dute. Hego Euskal Herriari dagokionez, EAEn euskarak izaera koofiziala dauka eta Villaverde Turtziozen zein Trebiñun euskarak ez dauka izaera ofizialik ere. Nafarroa Garaia, berriz, 3 zatitan banatuta dago: iparraldean eremu euskalduna, erdialdean eremu mistoa eta hegoaldean eremu ez euskalduna.

Euskararen egoera orokorrari so eginda, azken urteetan euskararen ezagutzak gora egin baldin badu ere, honen erabilerak beheranzko joera du. Izan ere, instituzioetatik aurrerapauso txiki batzuk eman arren, hauek ez dute inondik inora euskararen erabilera eta etorkizuna bermatzen.

Euskararen normalizazio eta erabilera soilik Euskal Herri Langilearen askapen prozesuarekin batera etorriko da. Ildo horretatik, euskara erabiltzea edo ikastea arrazoi ideologikoengatik izan dadin borrokatu behar dugu. Gauzak horrela, instituzioetatik hartzen diren neurriekin, euskarak ez du inoiz inolako normalizaziorik zein etorkizunik ezagutuko espainiar eta frantziar estatuen baitan.

5.JARDUN Koordinadora duela bi urte baino gehiago sortu zen, printzipio ideologiko independentista eta sozialistekin, Euskal Herri Langilearen topagune izateko. Zer bilakaera izan du koordinadorak bi urte eta erdi hauetan?

Esan dudan moduan, JARDUN Koordinadora independentziaren eta sozialismoaren helburuak erdiesteko Euskal Herri Langileari eskaintzen zaion antolakuntzarako tresna da. Gaur egungo baldintzak kontua hartuta, ziklo politiko berri honek konfrontazioa eduki behar du estrategiaren oinarrian. Izan ere, beharrezkoa dugu frantziar eta espainiar estatu kapitalisten zein euskal burgesiaren hegemonia eta zilegitasuna auzitan jartzea eta Euskal Herri Langilearen kontraboterearen oinarria izan behar den instituzio propioak eraikitzea, etorkizuneko Euskal estatu independente eta sozialista eraikitzeko.

Hori aintzakotzat izanda, balorazio positiboa egiten dugu sorreratik gaur egunera arte koordinadorak emandako urratsen inguruan. Azken finean, JARDUNetik epe luzerako estrategia baten baitan egiten dugu lan, eta estrategia horri so eginez koordinadorari jarritako helburuak erdiesten ari dira. Gure helburu nagusia Euskal Herri Langilea bere askapen prozesuan aurrerapausoak emateko beharrezkoak dituen borrokarako tresnaz hornitzea da, eta horren adierazle nagusia ASKE antolakunde antierrepresiboa sortzea da: Euskal Herri Langileak pairatzen duen errepresioari aurre egiteko beharrezkoa den antolakunde antierrepresibo nazionala. Bide horretan, Euskal Herri Langileak bere askapen prozesuan beharrezkoak dituen antolakuntzarako eta borrokarako markoak sortzen jarraituko dugu, proiektu politikoak integraltasunean eta etsaiaren aurkako konfrontazioan aurrerapausoak emate aldera.

6.Hirugarren urtea da Gernikan Aberri Eguna ospatuko duzuela. Nolako bilakaera izan du edukiari eta bertaratzeari dagokionez?

Aberri Egunari dagokionez, hazkunde bat nabaritu dugu, bai mobilizazioan parte hartu duen jende kopuruarengatik, baita JARDUNek antolatzen duen Aberri Egunak Euskal Herrian duen eragin zein nabarmentasunarengatik. Izan ere, gero eta jende eta hedabide gehiagok Gernikan antolatzen den Aberri Egunaren inguruan hitz egitea positiboa dela deritzogu, bai gure proiektu zein diskurtsoa zabaltze aldera, bai Euskal Herri Langilearen begien aurrean alternatiba politiko gisa agertzeko.

7.Euskal Herrian independentistatzat edo sozialistatzat deklaritzen diren gainerako erakunde nagusiei dagokienez, nola baloratzen dituzue haien ekintza politikoa eta gatazka nazionalan eta sozialean dituzten ondorioak?

JARDUN Koordinadoraren sorrerak argi uzten ditu Euskal Herriko askapen nazionalaren eta sozialaren aldeko borrokak zituen hutsune eta gabeziak. Azken finean, behar eta gabezia baten ondorioz sortu da JARDUN, hain zuzen ere, Euskal Herri Langileak Euskal Herriko askapen nazionala eta soziala aurrera eramateko beharrezkoa den antolakuntza markoa.

[Castellano]

Por tercer año consecutivo, JARDUN Koordinadora celebrará en Gernika el Aberri Eguna de este año. Desde La Haine, hemos hablado con ellos sobre el significado de este día y la

actualidad de la lucha nacional y social en Euskal Herria.

1. En el comunicado de llamamiento al Aberri Eguna habláis de la negación que hacen los Estados hacia Euskal Herria y de la asimilación de Euskal Herria dentro de los dos Estados que la oprimen. ¿Cómo veis el momento político actual que vive Euskal Herria en lo que respecta al conflicto nacional con ambos Estados?

Euskal Herria se encuentra a día de hoy sometida al Estado capitalista francés y al español. Siendo así, la opresión nacional que estos llevan a cabo tiene como objetivo satisfacer la movilidad de su mercado común y de su fuerza de trabajo. En este sentido, mantienen el proceso de asimilación de las condiciones objetivas de Euskal Herria como nación, con el fin de homogeneizar la lengua e identidad nacional.

Por otra parte, la burguesía vasca es otro instrumento que los dos Estados opresores emplean para garantizar la opresión nacional. Atendiendo a sus intereses de clase, aprovechan Euskal Herria exclusivamente para obtener rendimientos electorales o económicos, mientras garantizan los mediadores jurídicos, políticos e institucionales necesarios para ejercer la opresión nacional.

Frente a todo esto, El Pueblo Trabajador Vasco se encuentra a falta de instrumentos de organización revolucionaria que puedan superar la opresión nacional. Esta es, precisamente, la primera tarea de este nuevo ciclo político, la construcción de los instrumentos necesarios para revertir el estado de opresión a través de la propia organización del Pueblo Trabajador Vasco. Desde JARDUN Coordinadora estamos empezando a dar pasos en ese sentido.

2. Por lo tanto, ¿veis Euskal Herria más asimilada dentro de los Estados hoy en día que en las décadas anteriores?

Sin ninguna duda, el proceso de asimilación de los dos Estados opresores ha dado sus frutos, pero vemos necesario subrayar que la carencia de una organización revolucionaria referencial ha acelerado este proceso. Y es que, gracias a la lucha llevada a cabo en el ciclo político anterior, el clamor y la necesidad por la libertad en Euskal Herria siguen formando parte a día de hoy del Pueblo Trabajador Vasco. Por el contrario, la falta de referentes revolucionarios que organicen y lideren esa lucha hace que la lucha por la libertad de Euskal Herria esté en declive.

Por ello, es necesario enmarcar la lucha por la liberación nacional dentro de la lucha que lleva a cabo el Pueblo Trabajador Vasco, un proyecto político que tiene que darle integralidad a este proceso y situar la liberación nacional en la liberación social.

3. Además del conflicto nacional, también habláis de la lucha de clases y la lucha obrera actualmente en Euskal Herria, ¿en qué situación social se encuentra a día de hoy Euskal Herria?

Como hemos mencionado, la opresión nacional que sufre Euskal Herria tenemos que entenderla dentro de la lucha de clases. De hecho, el objetivo del capitalismo es que su mercado se expanda a cuantos más territorios posibles y, a su vez, que tenga la mayor

fuerza de trabajo disponible. Por tanto, en Euskal Herria también sufrimos las dinámicas y consecuencias de los dos Estados capitalistas, donde la crisis capitalista de la acumulación de capital es cada vez más evidente: la bajada del salario real, la privatización de los servicios públicos, la vulneración de las condiciones de organización política y el fortalecimiento y endurecimiento de la represión necesaria para mantener toda esta situación. Por si todo esto fuera poco, el Pueblo Trabajador Vasco se encuentra ante la falta de herramientas organizativas y de lucha necesarias para llevar a cabo la lucha por su liberación.

Por ello, el Pueblo Trabajador Vasco debe adquirir su libertad y, para superar la miseria y el empobrecimiento generalizados por el sistema capitalista, debe construir instituciones propias construidas en función de sus intereses de clase. Para ello, es necesario que el Pueblo Trabajador Vasco crea sus propios marcos organizativos y que todas las opresiones que sufre luchen en el marco de un proyecto integral.

4.Otro de los temas a los que hacéis referencia es el desprecio que hacen los Estados hacia la cultura vasca y sobre todo hacia el euskera, ¿cómo han evolucionado las políticas lingüísticas en los distintos territorios del país y en qué situación se encuentra el euskera a día de hoy?

En cuanto a Ipar Euskal Herria, el euskera no tiene ningún reconocimiento oficial, la Constitución francesa lo deja bien claro: “El francés es la única lengua oficial de la República francesa”. Aun así, fruto de la lucha llevada a cabo durante años, han conseguido hacer el BAXOA en euskera. En cuanto a Hego Euskal Herria, en la CAV el euskera tiene carácter cooficial y tanto en Villaverde de Trucios como en Treviño el euskera ni siquiera tiene carácter oficial. Nafarroa Garaia está dividida en 3 partes: en el norte la zona euskalduna, en el centro la zona mixta y en el sur la zona no euskalduna.

Haciendo referencia a la situación generalizada del euskera, aunque estos últimos años el conocimiento del euskera ha aumentado, su uso ha ido a menos.

Y es que, a pesar de algunos pequeños avances institucionales, éstos no garantizan en absoluto el uso y el futuro del euskera. La normalización y el uso del euskera vendrá de la mano del proceso de liberación del Pueblo Trabajador Vasco. En ese sentido, debemos luchar para que el uso o el aprendizaje del euskera sea por razones ideológicas.

Dicho esto, con las medidas que se adopten desde las instituciones, el euskera nunca conocerá normalización alguna ni futuro alguno en el seno del Estado francés como del español.

5.Hace ya más de dos años y medio que se creó JARDUN Koordinadora para ser un punto de encuentro del Pueblo Trabajador Vasco en torno a unos principios ideológicos independentistas y socialistas. ¿Cómo ha evolucionado la coordinadora en estos más de dos años y medio?

Como ya he dicho, JARDUN Koordinadora es el instrumento de organización que se le ofrece al Pueblo Trabajador Vasco para la consecución de la independencia y el socialismo.

Teniendo en cuenta las condiciones actuales, este nuevo ciclo político debe estar basado en la confrontación. Y es que es necesario poner en cuestión la hegemonía y legitimidad del Estado capitalista francés y del español, así como de la burguesía vasca, y construir las

instituciones propias que deben ser la base del contrapoder del Pueblo Trabajador Vasco, para construir el futuro Estado vasco independiente y socialista.

Teniendo en cuenta todo esto, hacemos una valoración positiva de los pasos dados desde la creación de la coordinadora hasta el día de hoy. Al fin y al cabo, en JARDUN trabajamos con una perspectiva a largo plazo en la que se están alcanzando los objetivos marcados por la coordinadora. Nuestro principal objetivo es dotar al Pueblo Trabajador Vasco de las herramientas de lucha necesarias para dar pasos adelante en su proceso de liberación, cuyo máximo exponente es la creación de la organización antirrepresiva ASKE: la organización antirrepresiva nacional necesaria para hacer frente a la represión que sufre el Pueblo Trabajador Vasco. En este camino, seguiremos creando los marcos organizativos y de lucha que el Pueblo Trabajador Vasco necesita en su proceso de liberación, con el fin de dar paso adelante en la integralidad de los proyectos políticos y en la confrontación contra el enemigo.

6.Y la celebración del Aberri Eguna, que este año convocáis por tercera vez en Gernika, ¿cómo ha ido evolucionando en cuanto a contenido y asistencia?

En relación al Aberri Eguna, hemos notado un incremento tanto en el número de personas que han participado en la movilización, como en el impacto y la notoriedad del Aberri Eguna que organiza JARDUN en Euskal Herria. Y es que creemos que es positivo que cada vez más gente y medios de comunicación hablen sobre el Aberri Eguna que se organiza en Gernika, tanto para difundir nuestro proyecto y discurso, como para aparecer ante los ojos del Pueblo Trabajador Vasco como alternativa política.

7.En cuanto al resto de las principales organizaciones que se declaran independentistas y/o socialistas en Euskal Herria, ¿cómo valoráis su acción política y sus consecuencias en el conflicto nacional y social?

La creación de JARDUN Koordinadora deja claras las lagunas y carencias que presentaba la lucha por la liberación nacional y social de Euskal Herria. En definitiva, JARDUN surge como consecuencia de una necesidad y carencia, precisamente, del marco organizativo necesario para que el Pueblo Trabajador Vasco pueda llevar a cabo la liberación nacional y social de Euskal Herria.

<https://eh.lahaine.org/aberri-eguna-gerrikan>